



BARREN

TOKIKOM

Pauso batera

Imanol Alvarez



UDAKO OPORRALDIA 2021



IZEN-EMATEA

Apirilaren 19tik maiatzaren 2ra

- www.elgoibarkoizarra.eus
- Elgoibarko Izararren bulegoan
- Ludotekan

Plaza mugatuak

Plazen eskipena maiatzaren 7an



Ekainaren 21etik uztailaren 16ra

1. txanda: ekainaren 21etik uztailaren 2ra
2. txanda: uztailaren 2tik 16ra

APAPA HH2

Astelehenetik ostiralera
10:00 - 13:00

Ohikoa / Bazkideak

1. txanda	60€ / 54€
2. txanda	60€ / 54€
Biak	114€ / 103€

APARIKETAN HH3-4

Astelehenetik ostiralera
10:00 - 13:00

Ohikoa / Bazkideak

1. txanda	60€ / 54€
2. txanda	60€ / 54€
Biak	114€ / 103€

ALDENIK ALDEN

LH4 - 6



Astelehenetik ostiralera
10:00 - 13:00
Ostegunetan egunpasa
10:00 - 17:00

Ohikoa / Bazkideak

1. txanda	78€ / 70,2€
2. txanda	78€ / 70,2€
Biak	148€ / 133€

FIRIN-FARAN HHS



Astelehenetik ostiralera
10:00 - 13:00
Asteartean egunpasa
10:00 - 17:00

Ohikoa / Bazkideak

1. txanda	78€ / 70,2€
2. txanda	78€ / 70,2€
Biak	148€ / 133€

ABIXADAN LH1-3



Astelehenetik ostiralera
10:00 - 13:00
Asteazkenetan egunpasa
10:00 - 17:00

Ohikoa / Bazkideak

1. txanda	78€ / 70,2€
2. txanda	78€ / 70,2€
Biak	148€ / 133€

UDALAREN DIRULAGUNTZAK

Maiatzak 8 - 18

Informazio Udalean
943741050 (Gasteria)
gasteria@elgoibar.eus

INFORMAZIO GEHIAGO

Elgoibarko Izarra
Aita Agirre Kulturgunra 3, 3. ezk
943 74 17 46
www.elgoibarkoizarra.eus
atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.eus

Elgoibarko Ludoteka
Gabriel Kuruatzebergi 6
943 74 86 83 /
656740795
ludoteka@elgoibar@gmail.com



Izen-emateak bakarka egingo dira, baina izen-emate formularioa betetzerakoan aukera egongo da norberarenaz gain, beste haur baten edo biren izena jartzeko, beti ere haren/haien gurasoekin aurrez hitz eginda. Izan ere, talde horrek balioa izan dezan, talderako izena eman duten gainerakoen formularioek gauza bera jaso beharko dute. Talde bakoitzak, izan bi lagunekoak nahiz hirukoak, zenbaki bana izango dute gero zozketarako.

ZERBITZU BEREZIAK

Zaintza

8:00 - 10:00 bitartean

Ekainak 21-uztailak 2 (66 € / 59*€)
Uztailak 5- uztailak 16 (66 € / 59*€)
Bi txandak (125 €/113*€)

Uztailak 19- uztailak 23 (33 € / 30*€)
Uztailak 26- uztailak 30 (33 € / 30*€)
Bi txandak (66 €/59*€)

Txoko osagarriak

10:00 - 13:00 bitartean

Uztailak 19-uztailak 23 (50 € / 45*€)
Uztailak 26- uztailak 30 (50 € / 45*€)
Bi txandak (94 €/85*€)

IZEN-EMATEA:
www.elgoibarkoizarra.eus
943 741 626



(Elgoibarko Izararako bazkideak)

Aisia eskaintza indartzea erabaki du Elgoibarko Izarrak, familien beharrak kontuan hartuta. Hala, Elgoibarko Udalarekin batera antolatutako lau asteko eskaintza beste bi astez luzatuko du Elgoibarko Izarrak, baina bi aste horietarako eta zaintza zerbitzurako ez da dirulaguntzarik izango.



SARA IRIONDO OTAÑO

Gizarte hezitzailea

Zurekin amesten dut

ilea, arraro dauka. Hala ere, bera da, egunak joan eta egunak etorri agurtu gabe gurutzatzen duen hori. Filipinasen topo egingo balute, mendi-mendian edo Trinitate egunez gazte-txean/ taberna-barraren batean, agurtuko lukeena.

Txurroak erosteko zain daude biak, ilaran, elkarrengandik 1,5m baino gutxiagoko distantziara. Bat-batean, Merkatu Plazako ateak ireki eta 82 urteko lagun talde bat irten da lastozko txapela buruan eta zapia lepoan. Ardo-pistolekin tiroka hasi eta oihu egin dute: Gora Borroka Pensionista! Sototik zintzarri-soinua entzun da, plazaren beste aldetik dultzainarena eta Urazandi aldetik astoaren arrantza. Mickey eta Sorginak aparkamentutik txistu egin dute eta Tartalo, Do-

nald eta Mari ziztu bizian irten dira Fortotik, eskuetan kokozko palmeratxoak, erroskillak eta bizkotxo zatiak daramatzatela. Kulturguneak eztanda egin du eta argi artifizialak ikusi dira periferiako auzoetan.

Zira gorridunak eta Emek elkarri heldu diote. Kolpe batean, Karakateko zelaian daude. Zein hizkuntzatan hitz egiten ari diren ez dakien arren, badaki gauza politai buruz hizketan ari direla. Barre egiten dute eta ahapeka kantatu. Eskua ferekatzen hasi zaio eta zazpigarren aldiz jo du iratzargailuak.

Zirraratuta altxatu da Eme. Nor noren oinetakoei begira geratuko ote da? Nork nor ezagutu nahiko ote du? Nor norekin pentsatzen masturbatuko ote da? Gaur berarengana joan eta esan egingo diot: 'zurekin amestu dut'.

Alarmak jo du seigarren aldiz. 10 minutu barru errepikatu sakatu eta buelta erdi eman du Emek. Lo hartu, ametsera itzuli eta goizero Maltzagara bidean ikusten duen zira gorridun horrekin zer gertatuko den jakitea da nahi duena.

Egunero ikusten duen pertsona berbera da, baina ez da. Betiko zira dararama. Zapatilak bart bizilagunari igogailuan ikusi zizkionak dira, ordea; eta

“Hala ere, bera da, egunak joan eta egunak etorri agurtu gabe gurutzatzen duen hori”



BARREN

AGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Eusko Legebiltzaren Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuiztak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zaloa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARRENEk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ORDEN BERRIA

Aurreko urtarrilaren 29an izan zen *Osasuna eta Covid-19* izenburuko hitzaldiko antolakuntza BARRENE bitartez zoriondu genuen lagun taldea gara berriz ere.

Oraingoan gure zorion eta eskerrik be-roenak Ongarri Zine Klub taldeari luzatu nahi dizkiogu, kulturaren alde egiten duten lan handiagatik, normaltasun apur bat eskaintzeagatik garai ilun hauetan, eta espreki joan den ostegunean eskaini zuten film latz eta zoragarriagatik.

Hain zuzen ere, *Orden berria*; Veneziako zinemaldian saritutako film distopiko frantziar-mexikarra. Distopia, utopiaren alderantzizkoa, etorkizun ilun eta ezkorra marrazten duen generoa. *Orden berria* filmak, gertaera puntual batetik abiatuta, Mexikoko klase sozial gero eta urrunduagoen arteko gatazka, botere hutsuneek dakarten kaosa eta indar militarrean oinarrituriko aginte egituren ustelkeria, interesak eta krudelkeria erakusten ditu bortizki.

Erretratatuako egoera apokaliptikoa oraindik urrun ikusi arren, gaur egun duela

urte batzuk irudituko zukeena baino gertagarriagoa egiten zaigu filmaren panorama; are gehiago errealitateak fikzioa gainditu dezakeela gero eta argiago dautzagunean; irudika ezina baitzitzagun egungo egoera duela soilik urtebete.

Ez al gara ba nolabaiteko distopia bizitzen ari? Gaixotasunak eragindako mina ere onarturik, ez al gara ba egoera hamaikakoztuta ordaintzen umilazio, murrizpen, debeku, krisi ekonomiko, depresio eta askatasun oinarritzkoen zapalkuntzan? Ez al digute nahi beldurra sustatuz menpeko egingo gaituen "irteera" bakarria saldu? Ez al dago ala, inolako merkatu eta botere interes ezkuturik atzean?

Asfixiazko testuinguru honetan zaila eta arrisksua suertatzen ari da kritika eta salaketa azalaraztea. Gaitz erdi oraindik zenbait arte espresioak, zinemak, komikigintzak eta literaturak arnagune bat eskaintzerik lortzen duten! horren lekuko Ongarriren lana. Bejondeizuela.

I.S.I., J.B.A., I.I.M., K.G.C., J.M.R.,
N.I.A., P.B.A., J.B.A. ea I.M.R.

► ERRIGORAREN BANAKETA, MAIATZAREN 7AN

Errigoraren eskaera kopuruak gora egin duenez, produktuen banaketa eguna aldatu behar izan dugu. Maiatzaren 7an, barikuan, egingo dugu banaketa Elgoibarren, Kultur Etxeko sotoan, 16:30etik 20:30era. Norbaitek arazoren bat izango balu, deitu dezala 610 904 371 telefono zenbakira.

Errigora




Maria Pilar Intxausti Muguruza

2021eko martxoaren 26an hil zen, 89 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Maitasunez, beti gure bihotzetan.

Senideak



Gojko Vucinic "Vuchy"

2021eko apirilaren 14an hil zen, 50 urte zituela.

***Latzetan eta alaietan batera izan gara,
zu kapitain, taldekide eta adiskide.***

Ez zaitugu ahaztuko.

Bidaia on, lagun.

Alkortako lagunak








Zuen kexak, galderak edo txalok bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112




Jausoro atzealdeko espaloia egoera txarrean dago: "Zubi-Ondo elkarte gastronomiko albotik Jausoro auzoko etxeetara doan espaloia ez dago egoera onean. Zikina eta hondatuta dago. Beti gutaz ahazten diren sentsazioa daukagu". Hirigintza Sailarekin harremanetan jarri da BARREN eta han esan digute espaloi horretan sortzen den artxintxarra garajeetako sarrera-irteeren ondorioz sortzen dela, baina espaloia, berez, egoera onean dagoela. Era berean zehaztu dute, garbiketa astean behin egiten dutela.



Urtia eta Albitxuri inguruak zikinkeriz beteta egoten dira. "Jendeak ez dauka naturarekiko eta gainerako herritarrekiko inolako errespeturik. Edozein lekutan botatzen dute zaborra, eta dena zikin-zikin lagatzen dute. Urtiako eta Albitxuriko industrigunerako bideko argazkiak dira hauek, baina herriko beste leku asko ere egoera berean ikusi izan ditut".



Aita Agirreko edukiontzia gainezka eginda zeuden astelehen goizean: "Zabor edukiontzia gainezka daude berriro ere, eta zabor pila bat edukiontzien kanpoaldean pilatuta". Hirigintza Sailetik argitu dute Aita Agirreko edukiontzietako zaborra egunero jasotzen dela.



Zergatik ez dute zabaltzen Mintxetako igerilekuen atzeko parkea urtean zehar? "Elgoibarko hainbat gurasok buruan aspaldidanik darabilgun galdera bat egin nahi diogu Elgoibarko Udalari: Herrietako itxiera perimetralak ohikoak zaizkigun egoeran honetan, zergatik ez da zabaltzen Mintxetako atzekaldeko belardia aisialdi gune bezala urte osoan zehar? Gure ustez ez du aparteko gastu handirik suposatzen halako erabaki batek eta onura handiak ekarriko litzuke beste natur gune bat izango genukeelako erabilgarri Elgoibarren bertan". Udal Kirol Patronatuko arduradunek esan dutenez, datozen asteetan aztertuko dute gaia Kirol Patronatuarren Batzordean, eta hartuko dute gai honi buruzko erabakia.

Udal Ludotekarekin batera antolatutako udaldia bi astez luzatu du Elgoibarko Izarrak, eta zaintza zerbitzua ere eskainiko du

Astehenean zabaldu zuten Elgoibarko Izarraren Atxutxia-maika Sailak eta Udal Ludotekak elkarlanean antolatzen duten udaldirako izena emateko epea. HH2tik LH6ra arteko umeentzako eskaintza prestatu dute ekainaren 21etik uztailearen 16rako, eta bi txanda egongo dira aukeran: ekainaren 21etik uztailearen 2ra eta uztailearen 5etik 16ra. Ordutegia 10:00etatik 13:00etarakoa izango da, eta adinaren arabera, astean behin, egun osoko irteerak egingo dituzte. Maiatzaren 2ra arte dago izena emateko aukera, eta horretarako hiru bide eman dituzte: Elgoibarko Izarrak Aita Agirren duen bulegoan, Ludotekan edo www.elgoibarkoizarra.eus webgunean. Plaza mugatuak izango dira, eta zozketa bidez esleitu dituzte plazak. Maiatzaren 7an jakinaraziko zaie familiei onartu dituzten ala ez.

Zaintza eta txoko osagarriak

Aisia eskaintza indartzea erabaki du Elgoibarko Izarrak, familien beharrak kontuan hartuta. Hala, Elgoibarko Udalarekin batera antolatutako lau asteko eskaintza beste bi astez luzatuko du eta



zaintza zerbitzua ere eskainiko dute, 8:00etatik 10:00etara. Antolatzaileek jakinarazi dute bi zerbitzu hauetarako ez dela diru-laguntzarik egongo.

PREZIOAK

- ◆ Ekainaren 21etik uztailearen 2ra: 66 euro (Elgoibarko Izarrako bazkideek: 59 euro).
- ◆ Bi txandak: 125 euro (Bazkideek: 113 euro).
- ◆ Uztailearen 5etik 16ra: 66 euro (Elgoibarko Izarrako bazkideek: 59 euro).
- ◆ Bi txandak: 125 euro (Bazkideek: 113 euro).
- ◆ Uztailearen 19tik 23ra: 33 euro (Bazkideek: 30 euro)
- ◆ Uztailearen 26tik 30era: 33 euro (Bazkideek: 30 euro)
- ◆ Uztaileko azken bi asteak: 66 euro (Bazkideek: 59 euro)

Bestalde, uztaileko azken bi asteetako txoko osagarrien prezioa hau da. Bi txanda izango dira aukeran: uztailearen 19tik 23ra, eta uztailearen 26tik 30era. Txanda bakarrak 50 euro (Bazkideek: 45 euro), eta bi txandak: 94 euro (Bazkideek: 85 euro).

Astehenean zabalduko dute Mendaroko udalekuetan izena emateko epea

Mendaroko Udalak, Elgoibarko Izarrarekin elkarlanean, udalekuak antolatu ditu HH2tik LH6ra arteko umeentzat. Ekainaren 21etik uztailearen 16ra izango dira, eta bi txanda egongo dira aukeran: lehenengoa, ekainaren 21etik uztailearen 2ra, eta bigarrena, uztailearen 5etik 16ra. Txanda bakarra edo biak aukeratu ahal izango dira. Izena emateko epea astehenean zabalduko dute, eta maiatzaren 9ra arte egongo da zabalik. Izena emateko esku-orria udalekuean, liburutegian edo ludotekan eskuratu daiteke.

Informazio gehiago: 943 033 282 - 685 720 010 telefonoetan edo kultura@mendaro.eus helbidean. Txanda bakarrerako izena eman nahi duenak 70 euro ordaindu beharko ditu (Mendaron erroldatuta ez daudenek, 90), eta bi txandetan izena emateko, 120 ordaindu beharko dira (Mendarotik kanpokoek, 180). Elgoibarko Izarrako bazkideek %10eko deskontua izango dute, eta familia ugarietan, %25eko deskontua aplikatuko zaio, hirugarren umeari, beti ere hiru umeak txanda bererako izena ematen badute.



Omenaldi hunkigarria egin zioten Oier Etxanizi zapatuan Bolatokian



Omenaldi hunkigarria egin zioten duela urtebete hil zen Oier Etxanizi etxekoek eta lagunak Bolatokian, eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen izenean, Porrotxek intxaurren bat landatu zuen bertan, elgoibartarrek maite dituzten pertsonak gogora ditzaten ondotik pasatzen diren aldiro. Pailazoen *Amaren intxaurrek* ikuskizunari erreferentzia zuzena egiten dio intxaurren ondorengoak, eta ikuskizuna Elgoibarren aurkeztu zutenean oparitu zien pailazoen intxaurren Oierren etxekoek, baina elgoibartar guztientzako oparia izan zen.

Zapatuko ekitaldian, Aspanogi elkarteak familia eta Oierren beraren lagunak parte hartu zuten, bai eta musika ibilbidean taldekide eta lagun izan zuten hainbatek ere. Etxanizek berak Kristina Perez eta Carmen Valoisekin batera idatzitako liburuak hainbat pasarte irakurri zituzten, Aitor Nova musikariak *Maitia, nun zira?* kantua eskaini zion eta Chip2rras taldekoek, esaterako, kantuan oroitu zuten laguna.

Errigoraren bi otar banatu ditu 'BARREN'-ek, udaberriko argazkiak bidali zituztenen artean



Aste Santuko oporraldiari lotuta, udaberriko argazkiak bidaltzeko eskatu ginen, eta argazkiak bidali dizkiguzuenen artean Errigoraren bi otar zozkatu zituen. Idoia Peñagarikano eta Jon Larrañaga izan dira saridunak. Argazkian (eskuman) Sheila Perez ageri da Jon Larrañagaren izenean otarra jasotzen.

Haurren aisialdirako dirulaguntzak emango ditu Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udalak 4.000 euroko dirulaguntzak banatuko ditu, haur guztiek izan dezaten herriko aisia eskaintzan parte hartzeko aukera. 2 eta 12 urte bitarteko adingabeak dituzten familia ugarietarako, guraso bakarrekotako familiei, familia ugaria edo guraso bakarrekotako izan gabe bigarren seme-alaba inskribatzen duten familiei eta Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta edo Gizarte Larraldiko Laguntza jasotzen duten familiei zuzenduta daude dirulaguntzak. Elgoibarko Udaletik jakinarazi dute dirulaguntza jasotzeko ezinbestekoa dela gutxienez azken sei hilabeteetan Elgoibarren erroldatuta egotea, eta jakina, udal-aisialdirako eskaintzaren batean izena ematea. Familia ugarietarako eta guraso bakarrekotako familiek kuota osoaren %30 jasoko dute dirulaguntzatan. Familia ugaria izan gabe, bigarren seme-alabaren bat apuntatzen dutenek, berriz, kuotaaren %30 jasoko dute, bigarren seme-alabagatik. Gizarte izaerako dirulaguntzaren bat (Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta edo Gizarte Larraldiko Laguntza) jasotzen duten familiek, ostera, kuotaaren %70 jasoko dute. Udako oporraldirako eskaera maiztaren 8tik 18ra egin behar da, eta neguko oporraldirako azaroaren 22tik abenduaren 3ra. Informazio gehiago, Herriarren Arreta Bulegoan (943 741 050).

Ipuin kontaketa eta liburu-truke azoka gaur, Mendaron

Liburuaren Nazioarteko Eguna da gaur, eta horren harira bi ekintza antolatu ditu Mendaroko Arno Guraso Elkarteak. Batetik, ipuin kontaketa saioa, Debako ipuin kontalarien eskutik, eta bestetik, liburu-truke azoka. Ipuin kontaketa saioa Ludo-teka aurreko parkean izango da, Azpilgoetan, 17:00etan hasita, eta truke azoka, Herriko Enparantzan egingo dute, 17:30etik 19:30era. Joan zen barikuan azokarako liburuak eman zituzten haurrek parte hartu ahal izango dute truke-azokan, eta eman zuten liburu bakoitzeko beste bat hartu ahal izango dute bertan.

2.000 kilotik gora garbantzua bildu dituzte Elgoibarren Lesbosko errefuxiatuen kanpalekura bidaltzeko, Zaporeak elkarteak eskatuta

Lesbosko kanpalekuko errefuxiatuei otorduak eman ahal izateko janari bilketa solidarioa antolatu du Zaporeak elkarteak Debabarrenean. Ermuak, Eibarrek, Mallabiak eta Elgoibarrek hartu dute parte ekimenean, eta herri bakoitzak elikagai bat biltzeko ardura zeukan. Elgoibarren kasuan garbantzua bildu behar ziren, eta arduradunek emandako datuen arabera, bi mila kilotik gora batu dira. Oso pozik agertu dira arduradunak emaitza honekin, eta eskerrak eman dizkiete elgoibartarrei.

Debabarrenean, orotara, 8.000 kilo elikagai bildu dituzte, eta lau pale bete dituzte produktu higienikoekin. Horrez gain, 10.000 euro inguru lortu dituzte errifan salmentarekin, tupper solidarioarekin eta herritarrek zein enpresek egindako donazioekin. Zaporeak taldeko arduradunek esan dute aurreko edizioetako marka guztiak hautsi dituztela aurten, eta oso pozik agertu dira. Kanpaina babesle asko izan dituztela azaldu dute eta denei eman dizkiete eskerrak, baina bereziki aipatu dituzte Cartonajes Eibar, Urkotronik, Bacalaos Alkorta, Frutas Do Santos eta Lumagorri.



San Lazaroko egoiliarrentzako gorde zuten gunea herritarrentzat zabaldu dute



Covid-19a dela-eta, Herriko Antzokiaren aurreko jubilatuen parkea hesitu zuen Udalak San Lazaro egoitzako egoiliarrek gainerako herritarrekin kontakturik izan ez zezaten, eta seguru egon zitezten parkean. Estalpe bat ere ipini zuten euria egiten zuenerako. Orain, herrian, Covid-19aren intzidentzia-tasa 400dik behera dagoela-eta, Udalak erabaki du eremua elgoibartar guztiei zabaltzea. Sarrera-irteerako hesiak kendu dituzte eta baita bertan zegoen karpa ere. Udalak ohartarazi du erabaki hau behin-behinekoa dela, eta azaldu dute berriro hesituko dutela parkea herriko intzidentzia-tasak 400dik gora egiten badu.

Maiatzaren 8an Morkaikora igotzeko deia egin du Sarek, '650 tontor' egitasmoaren barruan

Sarek deituta, Euskal Herriko 650 tontor igoko dituzte maiatzaren 8an, eta Elgoibarren, Morkaikora joateko deia egin dute. Egitasmo honekin bat egiten dutenek bideo laburrak bidaltzeko aukera dute, *Ni ere Morkaikora joango naiz* lemapean. Bideoak Whatssapez bidali behar dira 605 772 285 telefonora, apirilaren 25erako. Bideoak bakarka edo taldean grabatutakoak izan daitezke.

Fernando Mendez izan da 'Simplicissimus Kabaret' ikusteko sarreren irabazlea

Tartean Teatroaren eskutik iritsiko da gaur *Simplicissimus Kabaret* obra Elgoibarrera, eta BARRENEK sarrera bikoitz bat zozkatu du: Fernando Mendez izan da sariduna, eta bi sarrera izango ditu bere izenean Herriko Antzokiko txarteldegian. 19:00etan hasiko da emanaldia. Sarrerak Kutxabank bidez eskuratu daitezke eta agortu ezean, Herriko Antzokiko leihatilan ere salduko dituzte.



▶ IMANOL ALVAREZ TXIRRINDULARIA



Futbolean saiatu zen lehenengo, baina 10 bat urterekin Elgoibarko Lagun Taldea txirrindularitza eskolan eman zuen izena, eta geroztik, ez dio pedalak emateari laga. Mailaz maila egin du gora eta aurtengoa laugarren urtea du afizionatuetan. Eiser Hirumet taldean ari da egun, taldeburu eta emaitza onak pilatzen, eta Abiatzen Torneoan lider da une honetan. Zaila dela aitortu arren, helburua garbi du: "Urte amaieran profesionaletara salto egitea".

- AINARA ARGOTIA -

"Profesionaletarako aukera gehiago daude egon, baina balio dugula erakutsi behar dugu"

♦ Futbolak duen indarrarekin, zuk txirrindularitarako pausoa eman zenuen alebinetan. Zerk bultzatu zintuen?

Ez dakit, baina esango nuke Elgoibarko Lagun Taldean topatu nuen talde giroak zeresan handia izan zuela. Txirrindulari asko ginen taldean, hamabost bat bai, eta egunero ibiltzen ginen bizikletaz hara-hona. Jolasa zen guretzat. Herri Eskolan nenbilela, eskolara ere etortzen zitzaizkigun errepideko bizikletak erakustera eta probatzeko aukera ematera, eta gustatu egin zitzaidan. Futbola eta txirrindularitza oso kirol ezberdinak dira. Bizikletan gehiago entrenatu behar da, baina egun guztiak ezberdinak dira.

♦ Etxeko bultzada garrantzitsua izan ohi da edozertarako. Eta zuenean bada bizikletarako afizio handia duenik.

Hori ere bai. Gorkak [Zabala] erakutsi zidan errepideko bizi-

kleta bat estreinakoz eta bere bizikletarekin hasi nintzen entrenatzen ere. Mendaroko industrialdera joaten ginen hasieran eta han ibiltzen ginen bueltaka. Errepiderako saltoa ere bere eskutik eman nuen.

♦ Duela 8 bat urte elkarrizketatu zintugun BARRENERako, Mendaron jokaturako lasterketa baten harira. Espero zenuen iritsi zaren mailaraino iristea?

Bizikletan ibiltzea beste ametsik ez nuen nik orduan. Lasterketan beti moldatu naiz nahikoa txukun, baina ez, ez nuen espero, eta are gutxiago aurten eman dudana aurrerapauso hau ematea.

♦ Afizionatuetan laugarren urtea duzu hau, eta denboraldi hasiera ezin hobea ari zara egiten. Caja Laboral taldea utzi eta Eiser Hirumeten hasi duzu denboraldia. Bateratsu etorri da go-



rakada ere. Eraginik izan du talde aldaketak?

Elgoibarko Lagun Taldean ibili nintzen jubeniletan eta Ampo Goierri Txirrindularitza taldeak eman zidan gazte mailatik afizionatuetarako jauzia emateko aukera. Iaz, Laboral Kutxa izena hartu zuen talde horrek, baina azkenean hiru urte egin ditut eurekin afizionatuetan eta eskerrak baino ezin dizkiet eman. Oso eskertua natzaie afizionatuetara salto egiteko aukera emateagatik eta hiru urte hauetan emandako guztiagatik. Egia da, baina, orain arte beti izan ditudala taldean ni baino gehiago ziren txirrindulariak eta haientzako lan egitea egokitu zaidala gehiago. Txirrindularitza hori da. Batek irabazten du, baina poztu talde osoa poztzen da. Euskadiko Txapelketa eta lasterketa batzuk ere irabazi genituen guk. Egia da, era berean, iaz, buruz ez nengoela beharbada orain bezain ondo prestatuta, bestela, formaz, oso ondo nengo-elako, baina aurten txip hori aldatu dut eta emaitza ematen ari da. Gainerakoan, ezer gutxi aldatu dut, berdin entrenatzen naizelako. Aurten askatasun handiagoa daukat. Eiser Hirumet taldeak konfiantza handia jarri du nigan, bai zuzendariek eta baita taldekideek ere, eta momentuan ondo ari naiz erantzuten, nahiz ez dudan oraindik eskuak altxatzerik lortu.

♦ Eta horrek, taldeak norberarengan sinesteak eta norbera emaitzekin erantzuteko gai dela ikusteak ere, hauspotuko du bat, ala?

Bai, jakina. Negutik ari dira konfiantza osoa nigan jartzen eta eskertzekoa da. Hasierako entrenamenduetan ere ondo ikusten nintzen, erantzuteko moduan, baina batez ere Aiztondo Klasikoan ikusi nuen nire burua aurrean lehian. Gero, hirugarren egin nuen Gorkako Igoeran eta geroztik oso indartsu sentitzen naiz. Gozatzten ari naiz egia esan.

“Ia aurten antolatzen duten Idotorbeko Igoera, errekorra ontzeko irrikaz nago eta”



♦ Eta horren adibide da Valentziaga Oroitzarrean lortutako zazpigarren postua. Afizionatuen mailako estatuko probarik garrantzitsuenetakoa da Valentziaga Oroitzarre, eta estatuko elite mailako eta 23 urtez azpiko txirrindulari onenak biltzen ditu urtero. Nola ikusi zenuen zeure burua?

Oso urduri hasi nuen eguna. Eguraldi txarra ere egin zigun, eta ez nuen ondo hasi eguna, lasterketa hasteaz batera jausi egin nintzelako eta gurpila apurtu, baina zorionez, ez nuen minik hartu. Eroriko asko izan ziren egun horretan, eta horietako batean ukolondoa apurtu zuen Laboral Kutxan hiru urtez taldekide izan nuen Asier Etxeberriak. Pena handia hartu nuen, baina txirrindularitza halakoxea da. Helburu bat jarri nion neure buruari: erorikoak saihestea eta lehenengo hiru orduetan ondo jatea, ondo hidratatzea eta indarrak gordetzea. Ixua hogei laguneko taldetxo batean iritsi nintzen, baina behekoan utzi genituen batzuk atzean eta zortzi lagun iritsi ginen lasterketa buruan Etxebarrira. Eta azkenean, zazpigarren helmugaratu nintzen Arraten. Gauza handia da Valentziaga Oroitzarrean zazpigarren egitea, baina maila horri eutsi egin behar zaio orain. Urte erdi ona egin arren, gero mailari eusten ez bazaio, jai dagoelako hemen.

♦ Tira, ez da lasterketa bateko kontua. Abiatzen Torneoan lider zara oraintxe.

Bai. Hamalau lasterketa batzen ditu Abiatzen Torneoak. Momentuz, erdiak inguru jokatu ditugu, eta lider nago, bigarrenarekiko alde txikiarekin. Gauza handia da, baina lidergoa mantentzea izango da orain zaila. Ea gai garen!

♦ Profesionaletara salto egitea izango duzu helburu nagusizat, baina epe motzera zer beste duzu begiz jota?

Helburua erregulartasun honi eustea da. Azkeneko hilabeteetan ez naiz bederatzigarren postutik jaitsi eta birritan igo naiz podiumera (hirugarren egin du bietan). Maila horri eutsi nahi nioke, eta ahal bada, lasterketaren bat irabazi. Urte amaieran profesionaletara salto egitea dut helburutzat, baina oso-oso zaila da. Bitartean, Bidasoa Itzulia daukat begiz jota. Bi aste barru jokatzekoa zen berez, baina oraindik ez dakigu jokatuko den. Eta Santikutz proba irabaztea ere nahi nuke.

♦ Zuen egutegitik kanpo, baina Elgoibarren bertan badaukagu proba miitiko bat: Idotorbeko Igoera. Bigarren egindakoa zara. Ez al dizu tentatzen?

Bai, orain dela hiru urte bigarren egin nuen eta nahi nuke noizbait irabaztea. Ia aurten antolatzen duten eta egutegian libre daukadan eguna, parte hartzeko, errekorra ontzeko irrikaz nago eta. Oso igoera gogorra da. Plazatik irten eta hamabi minutuan iritsi beharra dago gora. Dena eman behar da bidean, eta ikusi besterik ez dago nola iristen diren guz-



Arg.: TOLIN photographer

“Alberto Contador erreferente izan dut beti, baina Alejandro Valverde ere asko gustatzen zait”

tiak: hustuta. Entrenamendu batean hiru segundogatik ez nuen lortu errekorra ontzea, eta ez izan zalantzarik saiaturik naizena.

♦ **Norbaitek pentsa dezake Laboral Kutxan jarraitu bazenu aukera handiagoa izango zenukeela lehen mailara saltoa egiteko, Euskadi Fundazioaren filiala delako Laboral Kutxa. Zer diozu?**

Filiala izanda, beharbada erraztasun handiagoa izan dezake Laboral Kutxan dabilizanak, baina haiek ere berdin-berdin lan egin behar dute gora igozteko. Maila eman behar da hemen, batean zein bestean, eta erregularra izan beharra dago Euskalteleira zein beste edozein taldeetara salto egiteko.

♦ **Zer ezaugarritako txirrindularia zarela esango zenuke?**

Mendate luze eta gogorretan moldatzen naiz ondoen; errepidean tentetzen denean. Eskasen esprinean ibiltzen naiz. Atzo ere hiru heldu ginen esprinean eta hirugarren egin nuen. Badaukat zer hobetu.

♦ **Profesionalen tropeletik zein ikusten duzu zure antzekoen? Edo bestela, zein daukazu erreferentetzat?**

Ez dakit. Alberto Contador beti izan da niretzat erreferente bat. Aldatz gora oso ondo moldatzen zen, baina esprinean ez zen azkarrena, eta beharbada horregatik ere erreparatzen nion nik asko. Alejandro Valverde ere asko gustatzen zait. 40 urterekin daukan indar hori eta lasterketak irabazteko daukan erraztasun hori ez dauka beste inork. Urte osoan izaten da gainera oso erregularra. Urtarrilean irabazi dezake lasterketa bat, eta urrian, Munduko Txapelketa. Izugarria da.

♦ **Eta zure mailakoen artera etorrita, zein aukeratuko zenuke? Edo zeintzuk ikusten dituzu gora egiteko aukerekin?**

Laboral Kutxatik Unai Iribarren izena emango nuke, bat esatekotan. Azkeneko lau urteetan oso fin dabil lasterketak irabazten. Asier Etxeberria eta Xabier Berasategi ere aipatuko nituzke talde beretik. Lizarte taldean ere oso maila handiko txirrindulariak daude, ia edonor delako gai lasterketa bat irabazteko. Txirrindulari gehiago ere badira onak, hala ere. Sailkapen nagusia hartu eta hor goian dabilizanak denak ikusten ditut aukerekin.

♦ **Eta hor goian lekurik badago?**

Azkeneko urteetan baino aukera handiagoa dago. Euskaltel-Euskadi desegin zenean kolpe handia hartu genuen guztiok, baina orain bueltatu da, eta Espainian, Kern Pharma ere sortu dute. Profesionaltara igozteko lehen baino aukera gehiago daude egon, baina balio dugula erakutsi behar orain!

♦ **Zelan entrenatzen zara?**

la egunero entrenatzen naiz, astelehen batzutan kenduta. Astea lasai antzean hasten dut, eta eguaztenerako hasten naiz es-tutzen eta kilometroak gehitzen. 3-4 orduko entrenamenduak izaten dira. Neguan, batez beste, 20-25 orduz entrenatzen gara

asteen. Jatekoa ere asko zaintzen dut, derrigor. Gure amak ez du ulertzen, baina, bai, nik ere kentzen dizkiot ertzekoak urdaiazpikoari.

♦ **Elgoibarko harrobikoa zara zu. Nola ikusten duzu harrobi hori? Badator atzetik beste txirrindularirik?**

Orain dabilizanak ez ditut pertsonalki ezagutzen, baina errepidean ia egunero gurutzatzen gara, eta bai, badator jendea atzetik. Umeak erakartzea da txirrindularitza eskolen erronka, probatzen duenari gustatzen zaiolako. Futbolak eta eskubaloiak duten indarrarekin zaila da haurrak inguratzea, baina probatzeko aukera emango nieke guztiari.

♦ **Ez dugu esango beste kiroletan arriskurik ez dagoenik, baina errepidera irten behar horrek zer pentsatua emango die guraso askori. Nola kudeatzen da beldur hori?**

Gure etxean ere egon da hori. Gure ama ez da sekula lasai egoten, baina normala da. Baina nik zortea izan dut babes hori beti izan dudalako etxean. Anaia ere hasi zen txirrindularitzan, baina laga zuen duela pare bat urte eta orain gimnasioari emanda dabil. Egia da txirrindularitza kirol gogorra dela eta guraso askok ez dutela nahiko hori beren seme-alabentzat, baina nik esango nieke kirol polita dela. Beti izaten dira egun txarrak, baina momentu on asko ere bizi izan ditut nik, eta lagun asko egin ere bai.

♦ **Momenturik onena zein izan duzu zuk? Eta, txarrena?**

Urte hasiera hau ari da izaten oso ona. Jubeniletan Iribarren irabazi nuen lasterketako eguna ere ez dut ahazteko, urte osoan ibili nintzelako aurrean garaipenik lortu gabe, eta azkenean azkenaurreko lasterketa hura irabaztea lortu nuelako. Momentu txarrena orain bi urte izan nuen, lesio baten ondotik. Tendinitisa izan nuen eta urte erdi eman nuen geldo edo gaizki entrenatzen. Oso gogorra egin zitzaidan ingurukoak entrenatzen eta lasterketak irabazten ikustea, ni etxean geldo nongoen bitartean.

♦ **Zerbait gehitu nahiko zenuke?**

Etxeak eskerrak eman nahiko nizkieke, momentu txarretan ere hor izan ditudalako beti ondoan, laguntzeko prest.

"Plastinilazko instalazio bat da, gure itsasoan eta munduko itsasoaren egoeraz ohartarazten duena hain zuzen ere. Gero eta plastiko gehiago ikusten dugu hondartzetan eta irudi honetan animaliak, hau da, mundu naturala, eta gizakiak, zaborra sortzen dugunok, irudikatu dituzte umek".

Artistak: **Haizea Egaña**, **Maddi Egaña**, **Uxue Jimenez**, **Iker Martin**,
Irati Martin eta **Sare Meabebasterretxea**

GURE ITSASOAK



▶ **OLATZ
OÑEDERRA**
DISEINATZAILEA

“Sekula ez nuke diseinatuko nik jantziko ez nukeen arroparik”

Diseinatzaile grafikoa da Olatz Oñederra (Elgoibar, 1974), eta bere ofizioan beste pauso bat eman du: jantziak diseinatzen hasi da. Orain dela urtebete inguru ekin zion **#NikBeharDu'** proiektuari, pandemia betean, besarkatzea, maitatzea, muxukatzea, ukitzea... begiratzea behar zuelako. Inguruko babesari esker hasi zuen proiektua, eta orain, marka patentatu eta erregistratu berri du.

- AINHOA ANDONEGI -

◆ **Nola bururatu zitzaizun ‘#NikBeharDu’ proiektua hastea?**

laz hasi nuen hau guztia, pandemia hasi zenean. Etxeratu egin gintuzten, eta hasieran hamabost egunerako izango zen konfinamendua luzatu egin zuten. Lana ere jaitsi egin zen, ez genekien noiz bukatuko zen egoera hura, eta nik inguruko falta handia sentitzen nuen. Lanetik etxera eta etxetik lanera ibili ginen, ez geneukan inorekin harremanik eta niri gogorra egin zitzaidan. Ogia erostera joan eta norbait ikusteko desiatzen egoten nintzen. Bideo-deiak egiten

genituen etxeokoen eta lagunekin, baina ez zen berdina. Harreman hori hotza da, eta denok konturatu ginen behar genuela elkarrekin egotea. Eta egoera berri horren barruan, buruari bueltaka hasi nintzen. Ohera sartu eta konturatzen nintzen behar nuela lagunekin egotea, etxeokoa besarkatzea, Oñatiko lagunen falta nuela... Eta egoera horretan, sentimenduak adierazteko arropak diseinatzea bururatu zitzaidan.

♦ **Idea bururatu, eta proiektua gauzatu zenuen, pandemia betean. Ausarta izan zinela esango zenuke?**

Ingurukoen babesa izan dut hasieratik. Etxeokoen eta lagunek eman didate aurrera egiteko indarra. Ideia komentatu nien eta denek esan zidaten oso ideia polita zela eta ateratzeko poltsa batzuk gutxienez, beraiek erabiliko zituztela. Eta horrela hasi nintzen, poltsa batzuk, kamiseta batzuk eta sudadera batzuk egiten.

♦ **Txiki hasi zen proiektua, baina handituz doa etengabe. Espero al zenuen horrelako arrakasta izaterik?**

Ba ez, egia esan. Ideia asko izaten ditut, baina hor geratzen dira, eta oraingoan pausoa eman dut, eta oso pozik nago. Hasieratik sekulako harreman ona izan zuen. Nire ingurukoak

“Euskaraz askoz hobeto azaltzen ditut gauzak eta argi neukan euskarazko marka izango zela”

hasi ziren lehenengo erabiltzen, baina berehala hasi zitzaidan jendea eskatzen. Kaletik nindoala ezagutzen ez nuen jendea ere ikusten nuen nik diseinatutako produktuekin, eta oso polita iruditu zitzaidan. Sare sozialek ere asko lagundu didate hau zabaltzen, eta jende askok eskatzen dizkit produktuak online bidez. Komunikabideetara ere iritsi zen proiektuaren berri, eta Euskadi Irratiko *Faktorian* elkarrizketa egin zidaten. Horren ostean Elgoibartik kanpoko jendea ere hasi zitzaidan eskarakerak egiten, Markinatik, Donostiatik eta Bartzelona eta Madrildik ere bai. Izugarria izan da; ez nuen espero, inondik inora. Etxeokoen eta lagunen babesa sekulakoa izan da eta haiei esker egin du honek aurrera.

♦ **Eta orain marka sortu eta patentatu**

egin duzu. Zer aldaketa ekarri dizkizu horrek?

Ikusi nuen proiektua hazten ari zela eta marka patentatzea pentsatu nuen. Ingurukoek eskatu nien iritzia, eta baietz esan zidaten; denek animatu ninduten. Orain proiektua serioagoa dela esan daiteke. Tipografiak gehiago landu ditut eta ikonoak gehitu dizkiot. Hasieran letra hutsak ziren, baina orain irudiak ere baditu. Momentuz bi irudi sortu ditut, maitatzea eta besarkatzea. Webgunea ere sortu dut, eta sare sozialekin ere banago.

♦ **Argi zenukan euskarazko marka izango zela?**

Bai, ez dut zalantzarik izan. Esan zidaten gaztelaniaz ere egiteko, baina ez zitzaidan burutik pasatu ere egin. Ni euskalduna naiz, eta euskaraz sentitzen dut. Gaztelaniaz ezin ditut sentimenduak berdin islatu. Elkarrizketaren bat ere egin zidaten gaztelaniaz, eta izugarri kostatu zitzaidan gauzak ondo esplikatzeko. Askoz hobeto azaltzen ditut gauzak euskaraz, eta argi neukan euskaraz izango zela nire proiektua.

♦ **Diseinatzaile grafikoa zara ofizioz, baina ez da gauza bera paperezko lanak eta arropa diseinatzea, ezta?**



“Sekulako poza ematen dit jendea nik diseinatutako arropekin ikusteak”

Lotura badauka, jakina, eta hau da nik egiten dakidana: diseinatzea. Diseinu Grafiko ikasketak egin nituen eta nire lana diseinatzea da, baina egia da ehungintzari buruz ez nekiela askorik. Gauza asko ikasi behar izan ditut, eta proiektu honi ordu asko eskaintzen dizkiot. Egia da orain ari naizela diseinatzen benetan niri gustatzen zaidana, librea. Nire lanean bezeroek eskatzen didatena egiten dut. Edukitzen dut sormena lantzeko aukera, baina beti patroiz batzuen barruan. Baina oraingoan nirea da proiektua, eta sortzeko aukera osoa daukat. Horrek, jakina, denbora asko eskatzen du. Etengabe ibiltzen naiz gauzak aldatzen, probatzen, esperimentatzen... diseinu lanak askotan ez du amaierarik izaten. Eta horrez gain, arropa mota berriak begiratzen ibiltzen naiz, poltsa desberdinak... Oso pozik nago proiektuarekin. Pandemiak gauza txar asko ekarri dizkigu, baina niri onak ere ekarri dizkit egia esan. Sormena piztu zidala ematen du, eta sentitu nuen behar batetik etorri da hau guztia.

♦ Zer ezaugarri dituzte zure produktuek?

Erabaki dut kalitatezko arropa egin

nahi dudala. Hasieran erabili nuen materiala eta orain erabiltzen dudana desberdinak dira. Orain kotoi organikoaren alde egin dut. Indiatik ekartzen dut zuzenean, dena zertifikatuta. Prezioan apur bat garestiagoa da, baina uste dut merezi duela. Bestalde, nik arropari ez diot generorik jartzten, bakoitzak gustuko duena erostearen aldekoa naiz, neska eta mutilen estereotipoei kasurik egin gabe. Hortaz, genero markarik gabeko arropa diseinatu dut, eta neurriei dago-kionez ere aukera zabala dago, xs batetik xl-ra. Ez dut inor baztertu nahi, eta edozeinek erabiltzeko moduko arropak diseinatu ditut. Erraz erabiltzeko jantziak dira, kalerako nahiz mendirako balio dutenak, eta praka zein soineko edo gonekin ondo geratzen direnak.

♦ Jendea zuk diseinatutako arropekin ikusteak zer sentiarazi dizu?

Sekulako poza ematen dit jendea nik diseinatutako arropekin ikusteak. Ezagunek esan zidaten jantziko zituztela, baina ezezagun asko ere ikusi ditut. Jende askok geratu nau kalean zoriontzeko, eta sare sozialen bidez ere mezu pila bat iritsi zaizkit. Batzuek esan izan didate egun txar bat eduki ostean nik diseinatutako jertse bat opari jasotzea izan zela eguneko onena, eta horrek aurrera jarraitzeko indarra ematen du.

♦ Diseinatzeaz gain, modelo lanak ere zeuk egiten dituzu. Hori da agian guzti honetan zailena?

Ba bai, niri asko kostatzen zait, baina argi neukan hori ere egin behar nuela. Sekula ez nuke diseinatuko nik jantziko ez nukeen arroparik.

♦ Non eskuratu daitezke zure produktuak?

Elgoibarren Moma jantzi dendan daude salgai. Hasieratik eskaini zidan laguntza Moma jantzi dendak eta eskerrak eman nahi dizkiot. Eibarko Gratzina dendan ere badaude, eta online bidez webgunean eta sare sozialetan.



Behia jo; behia jota (egon): Erori; hauts egin. Baita, zabalkuntzaz, desmoralizatu ere.
Hor basarrixa oiñ behia jota dago. / Jo jok behia gure Patxik!

212 lan aurkeztu dituzte Elgoibarko Idazlan lehiaketara eta inoizko parte-hartzerik handiena izan da aurtengoa



Elgoibarko Udalak antolatutako IV. Idazlan lehiaketako sariak banatu zituzten eguaztenean. Aurten 212 lan aurkeztu dituzte, eta inoizko partaidetzarik handiena izan dela zehaztu dute Udaletik. Horietatik 26 lan saritu dituzte. Sari banaketa Kultur Etxeko sotoan egin zuten, bi txandatan, jende pilaketa handirik ez sortzeko. Ane Beitia Elgoibarko alkatea, Andrea Arriola kultura zinegotzia eta Maialen Gurrutxaga Euskara eta Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako zinegotzia izan ziren Udalaren ordezkariak ekitaldian. Epaimahaia Jasone Osoro, Jon Eugi eta Iñigo Otañok osatu dute, eta hauxe nabarmendu dute aurtengo lanez: “Aurreko edizioetan askotan esan izan dugu baloreei buruz hitz egiten dutela istorioek, eta aurten, baloreak txertatuta edukitzeaz gain, kalitatezko ipuinak irakurri ahal izan ditugu”.

SARIDUNAK

A taldea

- ◆ Leire Etxaniz Bereziartua
- ◆ Lea Barrutia Cristobal
- ◆ Lore Basurto Gorostiza
- ◆ Nora Gurrutxaga Iriondo
- ◆ Unai Aizpurua Zabala
- ◆ Unax Ansola Arrieta
- ◆ Ane Astigarraga Etxeberria
- ◆ Manex Sanchez Silva

B taldea

- ◆ Iuren Huertos Otal
- ◆ June Arriaga Mujika
- ◆ Inar Urizar Aduriz
- ◆ Aitana Luque Garcia
- ◆ Esitxu Arregi Ansola
- ◆ Sara Etura Gonzalez
- ◆ Duna Santos Otegi
- ◆ Xabat Ibirriaga Izagirre

D Taldea

- ◆ Mikel Rodriguez Eugi
- ◆ Mikel Sastre Estarta
- ◆ Ivania Alvarado Chichande
- ◆ Eneritz Mulas Urquidi

E Taldea

- ◆ Sare Sainz Ibarluzea
- ◆ Joane Kapanaga Zaldua
- ◆ Nora Canton Gallardo
- ◆ Eneko Etxaniz Irueta

F taldea

- ◆ Irati Arantzamendi Solozabal
- ◆ Garazi Garrido Albizu

Jasone Osoro eta Uxue Alberdi Pitxintxun izango dira gaur liburuak sinatzen

Gaur, Liburuaren Egunean, Elgoibarko Pitxintxu liburu dendan euren lanak sinatzen ariko dira Jasone Osoro eta Uxue Alberdi idazleak, Alberdi goizez eta Osoro arratsaldean. Uxue Alberdik *Dendaostekoak* kronika literarioa argitaratu zuen urte amaieran, Pitxintxu bera duena ardatz. *Jenisjoplin* eleberraren gaztelaniazko edizioa ere publikatu du, Consonni argitaletxearen eskutik. Jasone Osorok labetik aterata berria du *Festa* gazteentzako eleberria, eta ez dira argitaratu zaharrak *Goazen!* telesailaren harira idatzitako liburuak ere. Atzo 43 urte bete zituen Pitxintxu liburu dendak, eta urteurrena eta Liburuaren Eguna ospatzeko liburu guztiek %10eko beherapena izango dute bi egunetan.

‘Cada sitio’ poesia liburu argitaratuko du Telmo Fernandez elgoibartarrak

Telmo Fernandez idazle elgoibartarrak bere lehen poesia liburu argitaratuko du aurki Ole Librosen Cuadranta argitaletxearen eskutik: *Cada sitio*. Liburu honetan nerabezaroan zehar gazte batek maitasunarekin dituen lehen joan-etorriak deskribatzen ditu Fernandezek. Liburu www.cadasitio.com webgunean eskuratu daiteke edota 683 433 553 telefono zenbakira deituta bestela. Liburu gaur –Liburuaren Nazioarteko Eguna– edo maiatzaren 2an –Amaren Eguna– erosten duenak lore bat jasoko du trukean Kala lora-dendan (San Frantzisko, 24), erosketaren frogagiria aurkeztuta. Era berean, liburuaren aurresalmentan parte hartzen duten guztiak Delirio Clothingeko produktu baten zozketan sartuko dira zuzenean.





“Gozatzeko eta hausnartzeko obra da”

► **PATXO TELLERIA**
AKTOREA

‘Simplicissimus Kabaret’ obra ikusteko aukera izango dugu gaur Elgoibarko Herriko Antzokian, Tartean Teatroaren eskutik. Patxo Telleria (Bilbo, 1960) aktoreak idatzi du obra, eta bera izango da protagonistetako bat. Umore mota desberdinen inguruan hausnartzeko antzezlan da. 19:00etan hasiko da.

- AINHOA ANDONEGI -

◆ Zuk idatzitako obra da ‘Simplicissimus Kabaret’. Nola sortu zitzaizun lan hori idatzeko ideia?

Antzezlan asko idatzi izan ditut, eta komedia eta drama uztaiz beti gustatu izan zait. Bizitza erreala eta fikzioa, barrea eta negarra uztaiz oso interesgarria iruditzen zait. Egun batean istorio interesgarri batekin egin nuen topo: bigarren mundu gerran atxilotutako alemaniar asko komikoak ziren, Berlingo kabaretetan aritutakoak, eta hortik hasi nintzen obra honen ideia lantzen. Kontzentrazio esparruetako drama du oinarri, eta gozatzeko eta hausnartzeko produktu bat da. Azken batean, ondo pasatzea eta gogoeta egitea ere ondo ezkontzen dira.

◆ Hiru umoregile alemaniarren azalean ariko zarete. Benetako umoregileak izan ziren. Antzezlan historikoa dela esan daiteke?

Protagonistak benetakoak dira, eta obra honek fikzioa eta historia uztaiz ditu. Neurri handi batean errespetatu dut historiaren kronologia, baina kabareteko eszena gehienak asmatutakoak dira. Oso galduta dago kartzeletan eta kontzentrazio esparruetan egin zen umoreari buruzko informazioa. Esaldi batzuk gorde dira eta horiek errespetatu ditut, baina gainontzekoa asmatutakoa da.

◆ Kontzentrazio esparruak moduko testuinguru dramatikoan, umorea egin duzue. Kontraesana dirudi.

Bai, olia eta ura nahastea modukoa dirudi, baina hala da. Ikusleak barre egingo du, eta momentu batzuetan seguraski pentsatuko du ez lukeela barrerik egin behar. Baina hori da antzezlan honen jokoa. Une batzuetan, esaterako, ikusleei proposatuko diegu esparruetako zaintzaileak izatea, eta guk

zaintzaile horiei eskainiko diegu umorea. Eta une batzuetan borroari eskaini dhal zaien umorea diskutigarria izan daiteke. Umore krudela izan ohi da, eta ikusleari barregura ematen dio, baina aldi berean pentsatzen du une horretan ez lukeela barrerik egin behar. Aurrean daudenak presoak dira, eta une horretatik gutxira, hilda egongo dira guztiak. Esperientzia nahiko berezia eta gogorra da.

◆ Umore mota desberdinei buruzko hausnarketa dela esan izan duzu.

Ez dugu umoreari buruzko doktore tesirik egingo, baina eszena bakoitzak umore mota bat izango du. Hasiera 20ko hamarkadan kokatzen da eta garai horretan umorea oso garbia eta zuria izango da, baikorra. Denborak aurrera egin ahala eta egoera politikoa gordinagoa bihurtu ahala, umorea ozpinduz doa. Garraztu egingo da umorea, eta egoera politikoak indarra hartuko du. Obra une historiko desberdinetan kokatzen da, eta ez da gauza bera 20ko hamarkada eroan egiten zen umorea edo 15-20 urte geroagokoa. 20ko hamarkadan mundua zoragarria zela uste zuen jendeak, denok aberatsak izango ginela; handik 15-20 urtera, berriz, guztiz bestelakoa zen egoera, eta umorea ere bai.

◆ Nolako harrera izan du obrak?

Oso ikuskizun berezia da, originala, eta musika aldetik izugarria. Obrarako propio konposaturiko musika sortu du Adrian Garcia de los Ojosek, eta zuzenean jotzen du. Produktu berritzailea da, eta oso ondo jantzita doa. Harrera ona izan du, eta joaten ez denari, damutuko zaio! Txantxak aparte, oso ondo pasatuko dute ikusleek.



Gojko Vucinici omenaldia egin dio Sanlok

Partida berezia jokatu zuen joan den zapatuan Alcora Forging Groupek, zendu berri den Gojko Vucinicek entrenatzen zuen taldeak. Nafarroako Beti Onak taldearen aurka jokatu zuten, eta Sanlok omenaldia egin zion Vucinici, klubeko jokalaria, entrenatzaile eta kirol zuzendaria izan denari. Ekitaldi xume eta hunkigarria izan zen. Bere herrialdeko, Montenegroko, selekzioaren txandarekin ageri zen Vucinicen argazki baten inguruan hainbat lora sorta ipini zituzten Olaizagako kantxan, eta baita Montenegroko eskubaloi selekzioarekin jantzi zuen kamiseta bat ere. Sanloko jokalaria gaztetxoek ikurriña eta Montenegroko bandera bat ere eraman zituzten ekitaldira. Alcortako jokalariek eta Beti Onak taldekoek minutu bateko isilunea egin zuten gero, Gojko Vucinicen alde. Bere emazte Natasak, Elgoibarko Udaleko ordezkariak (Gorka Garaizabal eta Ramon Mugica) eta Sanlokoek ere hartu zuten parte, tartean Aitor Urain egungo presidentek, Cesar Arriola aurrekoak eta Vucinici Sanlora ekarri zuen Juanma Lopezek. Era berean, Euskadiko Eskubaloi Federazioak ere izan du gogoan Vucinici, Euskadiko hautatzailea izan baitzen; eta, Euskal Ligako partida guztietan egin zituzten minutu isiluneak joan den asteburuan. Alcortako jokariak gogotik saiatu ziren orain gutxira arte entrenatzaile izan zutenari garaipena eskaintzen, baina 25-27 galdu zuten, partida estua jokatu eta gero. Vucinici Sanlo kirol taldeko erreferenterik garrantzitsuenak izan dela urte askoan adierazi dute klubeko arduradunek. “Eskubaloiaren kirol eta giza balioak ezin hobeto irakatsi eta transmititu dizkie neska-mutilei. Pertsona ederra joan zaigu, eskubaloia pasioz bizi zuena eta pasio hori kutsatzen zekiena. Sanlok eta Elgoibarko kirolak ez zaitu inoiz ahantziko”, esan dute.



Sanlok Aubixan egingo du eskubaloi campusa

Pandemiagatik herriko mugen barruan egingo du Sanlok eskubaloi campusa, Aubixan hain zuzen ere. Datorren astean zabalduko dute bederatzi garren eskubaloi campuserako izena emateko epea. Aurreko urteetan kanpoan egin izan dituzte egonaldiak; azkena Asturiasko Llanes herrian, 2019an. Aurtan, baina, koronabirusa dela-eta Aubixan egingo dute. Neurri bereziak hartuta egingo dutela azaldu dute. Antigeno-testak egingo dizkiete campuseko monitore eta parte-hartzaile guztiei eta Covid protokolo bat ere prestatu dute, “beharrezko baldintza guztiekin”. Eskubaloiarekin lotutakoek gainera, Aubixan egingo duten egonaldian hainbat jarduera egingo dituzte, besteak beste, hondartzako eskubaloia, surfa, mendi-irteerak eta hainbat jolas.



Sanloko jokalarientzako prezioa 290 eurokoa izango da, eta 325 euro ordaindu beharko dute Sanloko jokalariei ez direnek. Lau txandatan egingo dute aurtengo campusa, uztailearen 5etik 31ra, adin tarteka banatuta. Informazio osoa sanlo.net.

Eibarren aurkako derbia galdu arren, Haundik mailaz igotzeko kanporaketak jokatuko ditu

Haundik 3 eta 1 galdu zuten Eibar liderraren aurka Mintxetan joan den zapatuan jokatu zuten partida. Golik gabeko berdinketarekin amaitu zen lehen zatia, eta parekatua izan zen bi taldeek berdegunean eskaini zuten jokoa ere. Bigarren zatian erasokorrago zelairatu ziren eibartarrak, eta gehiago izan ziren. Hiru gol sartu zituzten (Pablok, Alvarok eta Jonloke) eta penalti bat ere gelditu zuen Haundiko atezainak. Eneko Basurtok sartu zuen etxekoen aldeko gol bakarra, penaltiz. Derbia galdu arren, Haundik matematikoki ziurtatuta dauka igotzeko kanporaketarako sailkatzea, azken jardunaldia bakarrik falta baita. Une honetan hirugarren postuan daude eta lehen laurek jokatuko dituzte final-laurdenetako kanporaketak, beste multzoko lehen lau sailkatuen aurka. Final laurdenak eta final erdiak joan-etorriko kanporaketara jokatuko dituzte, eta finala partida bakarrera. Azken jardunaldian S.D. Urola taldearen aurka jokatuko du Haundik, zapatuan (16:30), Zumarragako Argixao futbol zelaietan.



Aurkeztu dute Binakako Euskal Pentatloia

Binakako Euskal Pentatloia aurkeztu zuten joan den zapatuan Tolosako zezen plazan. Gizonezkoetan hamabi bikote lehiatuko dira, eta estreinakoz egingo dute emakumeen txapelketa. Emakumezkoetan hiru bikote lehiatuko dira, eta horietako bat da Uxue Ansorregi mendarorarrak eta Karmele Gisasola Zelai III.ak osatutakoa. Gizonezkoen txapelketan kanporaketa maiatzaren 22an izango da, Tolosako zezen plazan, eta bertatik sei bikote sailkatuko dira finalerako. Ekainaren 20an egingo dira gizonezkoen eta emakumezkoen finala, plaza berean.

Mailari eustea lortu du Gaurve Asesores eskubaloit taldeak

Denboraldi hasierako helburu nagusia bete du Gaurve Asesores taldeak: mailari eustea. Kukullaga Etxebarri taldeari 24-22 irabazi zion Sanloko senior emakumezkoen talde nagusiak joan den zapatuan, Olaizagan, eta emaitza horri esker mailari eustea ziurtatu du matematikoki, liga amaitzeko jardunaldi baten faltan. Une honetan 11. postuan (14 talde daude B multzoan) sailkatuta daude elgoibartarrak, 16 punturekin. Jokatutako 25 partidetatik zazpi irabazi, bi berdindu eta hamasei galdu dituzte. Hortaz, Zilarrezko Ohorezko Mailan jokatuko dute datorren denboraldian ere. Espainiako Eskubaloit Federazioak 2020/21 denboraldian Zilarrezko Ohorezko Mailan jokatzeke aukera eman zion Sanlori, eta onartu egin zuten.



Gogora ekarri behar da 2015-2016 denboraldian maila horretan jokatzeari uko egin ziola Sanlok, jokalarien belaunaldi-aldaketagatik, bereziki. Denboraldia oztopoz betea izan dela azaldu dute taldeko arduradunek, baina, "zailtasun guztiak gaingaitzen" asmatu dutela, besteak beste, pandemia, harmailetan zalerik gabe jokatzea, hainbat partida atzeratu behar izana koronabirusa dela-eta, eta lesioak. "Klubak gure jokalariek guztiak zoriondu nahi ditu, izan ere, beti izan dute fedea euren aukeretan, gogor lan egin dute entrenamenduetan eta adoretu lehiatu dira partidetan, exijentzia handiko maila honetan jokatzeke esperientzia gutxi zuten arren. Ez dugu ahaztu nahi Igor Lizarralde gure entrenatzaileak eginiko lan bikaina, Lorearen eta Xabirekin batera, jokalariek talde bikain hau maisuki gidatzen jakin baitute", esan dute.

LANA.....

Eskaerak

Adinekoak zainduko nituzke asteburuetan.

☎ 632 893 515

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Etxeko garbiketa lanetan aritzeko prest. Esperientzia. ☎ 612 565 490

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Etxeko lanetan ere aritzeko prest. Esperientzia daukat. ☎ 631 121 148

Lan bila nabil. Esperientzia daukat zerbitzari lanetan, umeak zaintzen eta portalak edo etxeak garbitzen. ☎ 641 511 910

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. 5 urteko esperientzia daukat. ☎ 632 576 642

Adinekoak zaintzeko prest nago. Titulua eta esperientzia ditut. Elgoibarren bizi naiz eta prestutasun osoa daukat. ☎ 660 511 781 / 943 742 330 (Elena)

Lan bila nabil. Adinekoak zaintzen esperientzia daukat. Etxeko langile moduan aritu izan naiz. ☎ 632 915 336

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago, arratsaldez edo gauetz. ☎ 631 439 959

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. ☎ 693 293 539

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Euskalduna naiz eta zainketa lanetarako titulazioa daukat.

☎ 626 490 986

Txakurrak paseatzera ateratzeko prest nago. Goizez. ☎ 618 337 766

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak edo sukaldari laguntzaile lanetarako ere prest. ☎ 666 197 831

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. ☎ 632 157 852

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 632 116 534

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 612 531 623

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan. ☎ 643 977 786

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Berehala lanean hasteko prest nago. ☎ 632 238 016

Adinekoak zaintzeko prest nago, ospitalean zein etxean. Orduka edo etxeko langile moduan. Titulazioa daukat. ☎ 602 490 595 / 641 614 236

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke eta baita etxeko lanak egin ere. Etxeko langile moduan lan egiteko prest. ☎ 631 980 531

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan eta asteburuetan lan egiteko prest nago. Legezko egoeran nago eta erreferentzia onak dauzkat. ☎ 643 601 205

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia eta erreferentzia onak dauzkat. ☎ 626 490 986

Eskaintzak

Elgoibarko ileapaindegi baterako esperientziadun ile-apaintzailea behar da.

☎ 634 261 485

ETXEBIZITZA.....

Etxea salgai Gabriel Krutzelaegi kaleko 8an, lehen solairuan. 70 m². Bi logela, egongela handia, komuna, eta sukaldea. Garajea eta trasteleku. Babes Ofizialeko etxea.

☎ 675 709 569

Etxe bat hartuko nuke alokairuan.

☎ 660 458 756

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€. Bestelakoak: 10€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzkoaldea Euzko Administrazioalderen Bazarako Kontakua</p>  <p>ROSA Ma PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Gure komunitateko igogailuaren atekak eta kabina aldatu nahi ditugu. Jabe batzuek ez daude ados, eta jakin nahi nuke ea gastu horietan parte hartzera behartu ditzakegun ados ez dauden jabe horiek.</p> <p>Oro har, obra horiek, industria-ikuskaritzak behartutako beste erreforma batzuek bezala, ez dira hobekuntzak, obra horren zenbatekoa gehiegizkoa ez bada behintzat. Ildo horretan, higiezinaren kontserbazio, gaikuntza, segurtasun eta irisgarritasun egokirako behar ez diren instalazioak direnez, legeak berak zehazten du kontzeptu hori. Beraz, industria-ikuskaritzak aginduta, igogailuan erreforma garrantzitsuak egin behar badira, komunitateak ezin du horien aurka egin; eta kasu honetan ulertzen dut atekak eta kabinak aldatzea normaltasun baten barruan sartzen dela, higiezina bera eta komunitateko elementu komunen hori behar den bezala kontserbatzeko.</p> <p>AHOLKUA: Industria ikusatzeko txosten batek zehazten ez badu, Jabeen Batzordeak onartu beharko du atekak eta kabina egokitzea beharrezko jarduketa gisa. Eta kontrako iritziren bat badago dauden legezko mekanismoak erabili beharko dira. Kasu horretan, aditu-irizpen batek zehaztuko du jarduketa horren kalifikazioa, beharrezkotzat jotzen dena, edo, hala badagokio, beharrezkoa ez den hobekuntzara mugatuko duena.</p> <p>ASESORIA GO/R AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
--	---



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira
BARRENEko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  688 634 044 bidalita.




Zorionak, **prinsesa!** Asko maite zaitugu! Elgoibarko familiakoen partez.



Zorionak, **ibai,** asteazkenean 4 urte bete zenituelako.




Gure etxeko **pizirrinak** 8 urte beteko ditu astelehenean. Zorionak! Amato, aitaxo eta Maddiren partez.



Zorionak, **prinsesa!** Iritsi da eguna! 6 urte! Muxu potolo bat etxeko guztion partez.



Zorionak etxeko txikixari 8 urte haundi egingo ditualako domekan. Muxu potolo bat etxeko danon partez, **Ane.** Primeran ospatu!



Zorionak, **ilune,** asteazkenean 11 urte bete zenituelako. Segi orain arte bezain jator. Muxu bat etxeko eta lagunena partez.



Zorionak, **Martin,** asteartean 4 urte beteko dituzulako. Muxu asko familiakoen, eta bereziki, amama Mariasunen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€



I. URTEURRENA
**Marian Elizburu
Kortaberria**

2020ko apirilaren 11n hil zen,
67 urte zituela.

*Eguneroko alaitasunaz
erakutsi diguzu bizitzeko grina
momentu zailenetako
zure irribarrea bezala,
beti izango zara gurekin.*



Eskertzak eta urteurrenak **943 743 704 / 943 744 112**
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

23 BARIKUA

17:00 Ipuin kontaketa saioa Mendaron, Azpilgoetan, Ludoteka kanpoan, Arno Guraso Elkarteak antolatuta.

17:30-19:30 Liburu truke-azoka Mendaron, herriko haurrentzat. Herriko Enparantzan. Arno Guraso Elkarteak antolatuta.

19:00 Antzerkia: 'Simplicissimus kabaret'. Tarteon Teatroak aurkeztuko du. Herriko Antzokian

24 ZAPATUA

09:00 Hileko azken zapatuko feria. Elgoibarko baserrietako produktuen salmenta, Kalebarren plazan.

26 ASTELEHENA

18:00 Emakumeentzako jabekuntza tailerra: Autozainketa feminista. Loredi Salegik dinamizatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

27 MARTITZENA

18:00 Literatura tailerra: 'Papeles de Aspern'. Haizeak antolatuta, Henry Jamesen liburua landuko dute. Liburutegian.

19:00 Death kafea: Heriotzaz hitz egiteko topaketa, Kultur Etxean. Izena emateko 627 117 819 (Iñaki) telefonora deitu behar da.

29 EGUENA

19:00 Antzerkia: 'Matriuska'. Euskaraz izango da. Kultur Etxeko sotoan. Edukiera mugatua izango da eta izena eman behar da: <https://labur.eus/matriuska>.

30 BARIKUA

18:30 Dorleta Kortazar ipuin kontalariren saioa Mendaroko udalbatza aretoan 4-8 urte bitarteko haurrentzat. Mendaroko Udalak antolatuta.

19:00 Zine foruma: 'La chica del tren'. Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du saioa. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Zinea (Herriko Antzokian)



'Minari. Historia de mi familia'

24 zapatua: 19:00

25 domeka: 19:00

26 astelehena: 19:00

'Tess eta ni'

25 domeka: 16:30

'Zinegoak: Valentina'

(Ongarri zinekluba)

28 eguaztena: 19:00

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

23 BARIKUA	24 ZAPATUA	25 DOMEKA	26 ASTELEHENA	27 MARTITZENA	28 EGUAZTENA	29 EGUENA	30 BARIKUA
Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Arriola	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola

* Fernandez:
Herriko Enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
Arantzazu Izpizua, Ibarakurutz, 7 (Eibar)
943 201 912



ZERBITZU BERRIA!

LAGUNAK
colchoneria textil hogar

Mota guztietako arropa konpontzen hasi gara.
Ba al duzu konpondu beharreko arroparik?
Ekarri, eta berri-berri utziko dizugu,
zeure neurria.

Jantzigintzarako makina bereziak ditugu,
edozein ehun konpondu ahal izateko:

**PUNTUZKO EHUNAK,
TXIRRINDULARITZAKO MAILOTAK ETA KULOTEAK,
LARRUA, ZETA ETA ABAR LUZE BAT...**

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978
www.textillagunak.com

EXPRESS ESKAINTZAK!

**BOSCH
WAU28S42ES
ARROPA
GARBIGAILUA**

599 €

AIG C



- IDOS autodosifikatzaile adimenduna. Gai da xaboia eta arropa leungaria dosifikatzeko, arropa kargaren, zikinkeraren eta ehun motaren arabera. Eta orain, programatzailer automatikoa ere badu.
- Activewater teknologia: aurreztu ura eta zaindu ingunumena.
- VarioDrum danborra: arropa zaintzen duen egitura espaziala.
- Kargatzeko + eteteko funtzioa.
- Zarata-maila minimizatzen duten bibrazioen aurkako panelak.
- 8 kg-ko karga.
- 1400 bir/min.

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

Jarri ezazu zure publizitatea **BARREN** astekarian edo www.barren.eus webgunean

943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARREN Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3 ezk. - 20870 ELGOIBAR



aldaz
hortz klinikak

RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Eibar
677 551 850



fisio&más
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 961 628
www.fisio-mas.com
IBS 87218



RPS 183/12
Uzuri
optika audio

Elgoibar
Tel.: 943 740 359

Deba
Tel.: 943 192 192

FUB Fernando
Urizar
Barandiaran
R.P.S.: 32/17

Medikuntzan doktorea
Psikiatrian espezialista
Psikoterapia psikoanalitikoak
Psikosomatika

Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)
Bállen kalea, 9, 1. ezk. (Bilbo)
furizarf@yahoo.com
615 715 404

**leku
eder**
hortz klinika
RPS 171/12

Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Etxebarria, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

federópticos
ikus
RPS 65/07

San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

RPS 271/12
ainhoa
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745



Osasun gida Osasun gida Osasun gida

Osasun gida Osasun gida Osasun gida



AZKEN ETXEBIZITZAK!!



- Elgoibarko erdigunean.
- 10 etxebizitza 3 logelakoak guztiz kanpokoak.
- Obra hasiera: 2021eko ekaina amaiera

Eraikitzen: **ABANTON BILBAO**
GRUPO

Informazio Gehiago